

Atentatua Gasteizen EAeko lehendakariaren adierazpena

Jaurlaritzak hautsi egin du EHrekiko lankidetza ituna

1- Eusko Jaurlaritzaren ize-
nean gogor gaitsetzi nahi dut
ETAk gaur egin duen atenta-
tua. Bertan bi errugabe
hil dituelako. Bata, Fer-
nando Buesa Blanco jau-
na, euskal herritarren
ordezkaria, eta bestea
Jorge Diez Elorza ertzai-
na.

Berriz ere, ETAk giza-
eskubiderik oinarritzoe-
na urratu du: bizitzeko
eskubidea, alegia. Berriz
ere, Eusko Jaurlaritzak,
euskal gizartearen orde-
zkarri gisa, elkartasun
osoan adierazi nahi die bi
hildakoen senideei,
alderdi sozialistari eta
Ertzaintzari. Une latz
hauetan sentitzen duten
mina, sufrimendua eta
etsipena bere egiten ditu
Gobernuak. Bihotz-bi-
hotzez, gure dolumina eta
euskal herritar guztien
adorea eta maitasuna
helarazi nahi dizkiegu.

2- Une honetan egindako
eraiketarengatik ETA
gaitzesteko hitzek sendo-
tasun eta egokitasun
guztia dute, askotan
errepikatuak izan diren
arren. Herri hau ez baita
inoiz indarkeriarekin bizitzen
ohituko. Ez ditu inoiz eta
batere murriztuko bere histo-
ria osoan defendatu dituen
baldintza etiko eta moralak.
Berriz esango dut: ez dugu
inoiz onartuko gure seme-
alaben etorkizuna indarke-
ria, beldurra edo sentsibilita-
te faltaren gainean eraikitzea,
pertsonek guztien giza-esku-
bideak urratzen direnean.
Bakea eta bizikidetzaren
eraikitze oinarriak indarkeri
ezaren kultura, demokrazia eta
justizia dira.

3- Euskal gizarteak biziki
nahi du bakea lortzea, eta
hala adierazi du askotan. Ez
gaude prest eta ez dugu onar-
tuko, beraz, ezer egin gabe
indarkeriaren erabileraren
alde daudenean gu berriro sar-
tzea iraganean sufritu ditu-
gun hilketa, min eta sufri-
menduarien gurpil ikaraga-
rrian.

4- Jaurlaritzaren ustez, Eus-
kal Herriarrok koalizioare-
kin izenpetu zuen lankidetzaren
hitzarmena aktibo bat izan
zen normalizazio politiko eta
sozialerako prozesuan.

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak atentatuaren ostean adierazpen instituzionala kaleratu zuen eta bertan EHrekin legegintzaldi akordioa apurtutzat eman zuen. Hona hemen adierazpena hitzez hitz:



Ibarretxe lehendakaria sailburuek lagunduta egon zen atzoko agerraldian.

Orduan lehenbiziko aldiz,
euskal alderdi politiko guz-
tiekin bakarrik bide politiko eta
demokratikoen aldeko kon-
promisoa zutela.

5- Akordio horren oinarriek
izenpetu zutenei zera exiji-
tzen zien: ETArekin atentatuak
gaitzestea eta gizarteak sufri-
tzen dituen indarkeria ekin-
tzak gaitzesteko jarrera argi
bat izatea. Hori da Eusko
Jaurlaritzak Euskal Herriar-
roko taldeari publikoki eska-
tu ziona, eta, bakeari beste
aukera bat emateko asmoz,
lankidetzaren akordioa indarrik
gabe utzi zuen. Zorritzarekin,
euskal gizarteak ezin izan du
egiaztatu ETArekin estrategia
argi eta garbi gaitzesteko
adierazpen hori. Ondorioz,
Eusko Jaurlaritzak Euskal
Herriarrok taldearekin izen-
petu zuen lankidetzaren akor-
dioa formalki eten du gaur,
ondorio guztietarako.

6- Lehendakariak egunero la-
nean jarraituko du bakea lor-
tzeko elkarrizketa eta hitza
defendatzaren dutenekin bate-
ra. Zailtasunak egon arren,
euskal gizartearen bihotzean
piztu den itxaropenaren ga-
rra bizirik eutsi behar dugu.

Inork ez digu kenduko, bakea
lortuko dugula uste dugunok
bakarriz izango baikara hura
aurkitzeko gauza.

7- Eusko Jaurlaritzak hiru
eguneko dolu ofiziala ezarri
du, eta keinu horren bidez,
euskal gizartearen izenean,
gure dolumina adierazi nahi
diegu Fernando Buesa Blan-
co jaunaren senide eta adis-
kideei; giza, etika eta morala-

ren ikuspuntutik inolako jus-
tifikaziorik ez duen bidegabe-
keria honen aurrean, hilketa-
ren bidez haien pertsona
maiteak ondokitueroan dituz-
telako.

8- Orain inoiz baino gehiago,
ETArri argi eta garbi esan
behar zaio hori ez dela bidea,
ez duela lekuri gure gizarte-
an, Euskal Herriaren boron-
datea behin betiko errespetu
dezala eta armak utzi ditzala.

9- Euskal herritarrei dei egi-
ten diegu datorren larunba-
tean, otsailaren 26a, Gastei-
zen arratsaldeko 17:00etatik
aurrera egingo den manifes-
taldian parte hartzea, *Bakea
behar dugu. Bizitzari begiru-
nea. ETA gelditu* lelopean.

10- Lehendakari gisa eta
Euskal Herriaren izenean,
atentatu hau gaitzetsi eta hil-
tzen uztea exijitzen diot ETAr-
ri, sendotasun osoz. Gaur,
inoiz baino gehiago, lasaita-
sun mezu bat helarazi behar
diegu euskal gizarteari, itxa-
ropena gal ez dezan. Bakean
bizitzeko konfiantza badugu,
lortuko dugu.

Mobilizazio deialdia

■ ■ ■ Eusko
Jaurlaritzak
manifestaziora
deitu du, larunbat
arratsaldeko
17:00etan
Gasteizen, *Bakea
behar dugu.*
Bizitzari begirunea.
ETA gelditu
lelopean

erreakzioak

**Jose Maria Setien-
Juan Maria Uriarte •**
Donostiako gotzainak

«Hilketa honek bizitza
demokratikoari
sekulako kolpea ematen
dio eta gizarteari
moralak kendu»

► Jose Maria Setienek eta
Juan Maria Uriartek —
Donostiako gotzain ohiak
eta egun gotzain denak—
bat egin zuten euren
adierazpenetan Fernan-
do Buesaren hilketa sala-
tzeko. Hilketa honek «bi-
zitza demokratikoari se-
kulako kolpea» ematen
diola adierazi zuten biek,
«gizarte osoari morala
kentzen dioten bitartean,
hainbeste desiatutako
bakea eragozten duela-
ko». Gasteizen izandako
atentatua gaitzetsi zuten
bi gotzainek, «ez hiltzeko
printzipioa errotik bor-
txatzen duela». Jose
Maria Setienek eta Juan
Maria Uriartek aburuz,
atentatuak «herriko insti-
tuzioei eraso egiten die,
haren ordezkariak hil-
tzen dituelako». Hala ere,
«atentatuok gaitzesten
dituzten eta demokrazia-
ren defentsa egiten du-
ten» herritarrengan
oraindik «itxaropena» ge-
ratzen dela gaineratu zu-
ten.

Jon Buesa • Fernando
Buesaren anaia

«Bere ideiak
defendatzeagatik hil
dute nire anaia»

► Jon Buesak, Fernando
Buesaren anaia eta EAJ-
ko ABBko kideak, adiera-
zi zuen Fernando Buesak
ez zuela batere beldurrik
sentitzen. Hala, Jon Bue-
saren ustez, «bere ideiak
defendatzeagatik hil du-
te». Gainera, deialdia egin
zion ETArri Euskal Her-
rian zabaldu den proze-
sua «ez babesteko» eta bo-
rroka armatua alde bate-
ra uzteko. «Mesede egin
nahi badiote Euskal Her-
riari, bakean utzi gaitza-
tela, utzi diezaiotela hil-
tzeari, eta borroka egin
dezatela hitzarekin soi-
lik». Ausardiarekin zion
ETArri Jon Buesak,
behiogoz borroka arma-
tua alde batera uzteko.
Bestalde, «frustrazioa»
sentitzen duela adierazi
zuen Buesak, «ideiekin
borrokatu behar delako,
ez borroka armatuare-
kin».